

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK:
HAUR HEZKUNTZAKO GELA BATEAN EGINDAKO IKERKETA**

Egilea: Naia Bedialauneta Solabarrieta

Zuzendaria: Onintza Odriozola Irizar

Leioan, 2019ko maiatzaren 30ean

A U R K I B I D E A

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	4
1.1. Sexu-genero sistema	4
1.1.1. Genero rola eta estereotipoak.....	5
1.2. Genero sozializazioaren eragileak	7
1.2.1. Familia.....	7
1.2.2. Ikus-entzunezko komunikabideak.....	8
1.2.3. Eskola.....	9
1.3. Eskola hezkidetzaren bidean.....	9
1.3.1. Ibilbide historiko laburra: eskola mistoaren sorreratik gaur egunera.....	9
1.3.1. Zer da hezkidetzatza?.....	11
2. Metodologia.....	13
3. Lanaren garapena.....	13
4. Emaitzak	16
4.1. Istorio baten bitartez rol eta estereotipo jakinak neskekin edo mutilekin lotzea .	16
4.2. Inauterien testuinguruan mozorroa hautatzea	18
4.3. Jostailu-multzoen sailkapena eta jostailu gogokenaren aukeraketa.....	19
4.4. Lanbideak genero jakin batekin lotzea	21
5. Ondorioak	23
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	26
 ERANSKINAK	 30
1. eranskina: rol eta estereotipo jakinak neskekin edo mutilekin lotzea.....	30
2. eranskina: jostailu gogokenaren aukeraketa egitea.....	31
3. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea	32
4. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea: galdetegiaren emaitzak	33
5. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea: marrazkiak	34

**GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK:
HAUR HEZKUNTZAKO GELA BATEAN EGINDAKO IKERKETA**

Naia Bedialauneta Solabarrieta

UPV/EHU

Gaur egun oraindik jendartean generoaren araberako zatiketa garbia ikus daiteke. Egoera hori kontutan izanda, ikerketa-lan honen helburu nagusia Haur Hezkuntzako hurrek gizarteak transmitituriko genero rolak zein estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta aztertzea izan da. Horretarako, diagnostiko mailako esku-hartze bat egin da 5 eta 6 urteko hurrekin, haien esanguratsua diren gaien inguruko talde-proba zein elkarrizketa irekiak aurrera eramanez. Ikerketan lortutako emaitzei tratamendu kualitatiboa eman zaie eta bildutako informazioa aztertu ondoren, ondorio nagusi batzuk atera dira. Hainbat esparrutan salbuespenak dauden arren, hurrek genero rolak eta estereotipoak barneratuta dituztela ikusi da. Lan honen bitartez ekarpen txiki bat egin nahi izan da etorkizunera begira, hezkidetzari bultzada emateko xedearekin.

hezkidetzak, generoa, rolak, estereotipoak, Haur Hezkuntza

Hoy en día todavía se puede ver claramente la división de género en la sociedad. Teniendo en cuenta esta situación, el principal objetivo de este trabajo de investigación ha sido analizar hasta qué punto tienen los niños y niñas de Educación Infantil interiorizados los roles y estereotipos de género transmitidos por la sociedad. Para ello, se ha hecho una intervención de diagnóstico con niños y niñas de 5 y 6 años, llevando a cabo pruebas de grupo y conversaciones abiertas en torno a temas que son significativos para ellos y ellas. Se les ha dado tratamiento cualitativo a los resultados que se han obtenido en esta investigación y tras analizar la información adquirida, se han sacado algunas conclusiones. Aunque haya alguna excepción, se ha visto que los niños y niñas tienen interiorizados los roles y estereotipos de género. Mediante este trabajo se ha querido hacer una pequeña aportación mirando al futuro, con el propósito de dar un empujón a la coeducación.

coeducación, género, roles, estereotipos, Educación Infantil

Nowadays, gender division can be clearly seen in society. The main objective of this research work has been to investigate up to what point children in Pre-Primary Education have embraced the gender roles and stereotypes that society transmits. In order to do so, a diagnosis intervention has been practised with children aged 5 and 6, carrying out tests and open conversations about significant topics for them. The results obtained in this research have had qualitative treatment and after analysing the information, many conclusions have been drawn. Even though there are exceptions, we have seen that children have embraced the gender roles and stereotypes. With this assignment a small contribution has been wanted to do, in order to push forward coeducation.

coeducation, gender, roles, stereotypes, Pre-Primary Education

Sarrera

Generoaren arabera zatiketa eta horrek dakarren rolen banaketa belaunaldiz belaunaldi joan dira erreproduzitzen, pentsamendu binarioa gizartean erabat errotuz. Halaber, genero estereotipoak ere errepikatuz joan dira. Guzti hori ez gertatzeko lanketa handia egin da eta, ondorioz, egun genero estereotipoek ez dute duela urte batzuk bezain besteko banaketa erakusten. Argi dago emandako pausuek onurak ekarri dizkiotela gure gizarteari eta, batez ere, eskubideak hainbeste urtetan urratuta izan dituzten emakumeei. Hala ere, horrek ez du esan nahi dena eginda dagoenik, arazoari konponbidea eman zaionik. Sistema hori ez da ezabatu eta gure kalterako, lehen disimulurik gabe egiten zirenak oraingoan oharkabean erreproduzitzen dira, ezkutuan.

Hezkuntza da hari hori eteteko gakoa baina heziketa ez da bakarrik eskolan ematen. Izan ere, haurrak etengabe informazioa jasotzen ari dira, ikastetxean, kalean, etxean zein komunikabideetan eta horien arabera haien pentsamendua eraikitzen dihardute. Ondorioz, haurrek genero banaketa erabat barneratzen dute eta horren arabera egiten dituzte haien bizitzako hautuak. Ikerketa honen marko teorikoan, gai horietan sakondu dugu landa lana ondo kokatu ahal izateko.

Esan bezala, oraindik generoaren arabera desberdintasun argiak ikusten dira eta lan honen bitartez, Haur Hezkuntzako haur talde batekin jardunez, gizarteak transmitituriko genero rola zein estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta aztertu nahi izan da. Lan honen helburua aurretik esandakoa ikertzea denez, diagnostiko mailako esku-hartze bat egitera jo dugu hezkidetzarekin konpromisoa duen ikastetxe batera; ikastetxea Bizkaiko kostaldeko herri txiki batean dago kokatuta eta publikoa da. Ikerketa-lan honetako datuei emandako tratamendua kualitatiboa izango da eta tresna gisa, talde-probak eta elkarrizketak erabiliko dira. Emaizak azalatu ostean, ondorioak aurkeztuko ditugu eta ondoren, hainbat ikerlerro proposatuko ditugu etorkizunera begira. Lanari amaiera emateko, informazio sakonagoa aurkitu daitekeen iturri bibliografikoak agertuko dira, baita ikerketarako erabilitako baliabideen azalpen zabalagoa ere, eranskinetan.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Gaur egun, hezkuntza-komunitateak hezkidetzaren aldeko pausuak ematen dituen arren, Haur Hezkuntzako haurrek genero rolen eta estereotipoen inguruan gizartearen eragina pairatzen dutenaren gaineko susmoa izan dugu. Izan ere, Practicum IIIan jarduterako orduan, hori pentsaraztera bultzatu gaituzten hainbat zantzu ikusi ditugu. Haur Hezkuntzako haurrak txikiak izan arren, badirudi jada barneratuta dituztela hainbat rol eta estereotipo. Hipotesi horretatik abiatuta, lan honen helburu nagusia generoaren araberrako rolen eta estereotipoen Haur Hezkuntzako haurrengan zenbaterainoko eragina duten aztertzea da. Izan ere, gaur egun oraindik, generoaren arabera estereotipaturiko rol, uste eta jokabideak errepikatzen jarraitzen dugu haur zein helduok. Gainera, haurren mundua balioz eta mezuz josirik dago, batzuetan transmititzen ari garenaz konturatzen ez garelarik.

Aipaturiko helburu hori lortzeko egindako ikerketa azaltzen hasi aurretik, lehenik eta behin sexu-genero sistema eta horren harira sortu diren genero rolen zein estereotipoen gainean hitz egingo dugu. Ondoren, haurren pentsaeraren eraikuntzan berebiziko eragina daukaten hiru eragile nagusien inguruan egingo dugu solas: familia, ikus-entzunezko komunikabideak eta eskola. Bukatzeko, hezkuntza-komunitatera hurbilduz, hezkidetzaren bidean dagoen eskolak izandako ibilbide historikoari buruz jardungo dugu, hezkidetzak duen garrantzia azpimarratuz.

1.1. Sexu-genero sistema

Gutxi gora behera 90. hamarkadara arte, sexu eta genero kontzeptuak trukatu egin ohi ziren, esanahi berbera balute bezala erabiltzen ziren. Egungo kontzeptualizazioak, ordea, marra argia ezarri du bi kontzeptuen artean (Martínez, 1999). Sexua jaiotzen garen gorputz-ezaugarri, ezaugarri fisiko zein biologikoen multzoa da, naturalak dira eta ez dute portaerarik determinatzen. Generoa aldiz, sexu biologikoen arabera artifizialki ezarritako ezaugarri psikologiko, sozial eta kulturalen multzoa da. Ez dira naturalak, ikasitakoak baizik eta portaera determinatzen dute, "maskulinoaren" eta "femeninoaren" arteko diskriminazioa ezarritik (Sánchez de Madariaga, 2009).

Sexu-genero sistema izan zen kontzeptu biak banatu zituena. Subiratsek (1994) esan bezala, argi dago biologikoki desberdintasunak ditugula emakumezko eta gizonezkoek

genitalei eta erreproduzioari dagokionez. Hala ere, ez dago egiaztatuta sexuak generoen arteko gaitasun, jarrera edota izaera baldintzatzen duenik. Ikusi da gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak sozialki eraikitako genero-posizioek baldintzaturik daudela.

1.1.1. Genero rolak eta estereotipoak

Nabaria da emakumezko zein gizonezkoei jarrera, funtzio zein balio ezberdinak esleitu zaizkigula: batez ere XIX. mendetik aurrera, emakumezkoak ugalketarekin eta zaintzalanekin gehiago lotu izan dira, lan ezkutuarekin; gizonezkoak aldiz, produkzioarekin, eta horrenbestez, errekonozimendurekin (Arbaiza, 2000). Reizabalek (2015) esan bezala, gizon-emakumeen arteko osagarritasunean oinarritzen da genero rolen banaketa tradizionala, eta horien ondorioz, emakumea bigarren mailan geratzen da. Egoera hori aldatuz doan arren, emakumeek esparru publikoan dihardutelako, ezin uka daiteke genero rol horien esleipenak jarraitu egiten duela.

Genero estereotipoek aldiz, gizonezko eta emakumezkoei buruz zabalduko usteei erantzuten diete, generoan oinarrituz eta pertsonaren banakotasuna alde batera utzita. Horrela, genero estereotipoek gure bizitzako jarreran, itxaropenetan zein jokabideetan eragiten digute (Sánchez de Madariaga, 2009). Reizabalek (2015) ongi banatu zituen gizonezko zein emakumezkoen gainean dauden estereotipo batzuk; ondorengo taulan ezaugarri horietako batzuk agertuko dira:

	Nortasun-ezaugarriak	Rolak	Ezaugarri fisikoak	Gaitasun kognitiboak
Estereotipo femeninoa	Ahula Beldurtia Besteekiko dedikazioa Emozionalki ezegonkorra Koherentziarik gabekoa	Arropaz/ etxeaz arduratzea Emozio sostenguari iturri Erosketa egitea Modaz interesatzea	Ahots suabea Barregarria Dotorezia Edertasuna Ikusgarria Polita <i>Sexya</i>	Adierazpena Artistikotasuna Ezagutza urrikoa Hautemate-gaitasuna Hitzezko gaitasunak

	Lan-anbizio gutxikoa Hunkibera Kaskarina Pasiboa Menpekoa Ondo hezia Ulerkorra Xamurra	Sukaldaria Txutxu-mutxu zalea Umeez/zaharrez arduratzea	Txikia	Intuizioa Irrazionaltasuna Irudimena Sortzailetasuna Ukimena
Estereotipo maskulinoa	Aktiboa Arrazionala Ausarta Dinamikoa Eraginkorra Independentea Emozionalki egonkorra Lehiakorra Ni sendoa Oldarkorra Psikologikoki indartsua	Brikolajea Diru-hornitzailea Familia-burua Kirolzalea Kontrol ekonomikoa Liderra Sexu-iniziatiba	Atletikoa Beltzarana Bizkar zabala Garaia Gogorra Gorputz handikoa Indar eta kemen fisikoa Muskularra	Analitikoa Arazoak bideratzeko gaitasuna Arrazoibide matematikoa Gaitasun kuantitatiboak Pentsaera abstraktua Zehatza Zenbaki/zientzia gaitasuna

1.taula: gizarteak transmititzen dituen genero estereotipoak (Reizabal, 2015)

Taula ikusirik, argi ikus daiteke gizarteak ontzat ematen dituen ezaugarriak gizonezkoei esleitzen zaizkiela. Kontua da, hainbat autorek esan bezala (Freixas, 2001), estereotipo hauek txikitatik ikasten direla eta izaera definitzen digutela. Behar-beharrezkoa da horrenbestez, estereotipoekiko jarrera kritikoa izatea, izan ere, talde konkretuetako kideak gutxien dituzte, kasu honetan emakumeak.

1.2. Genero sozializazioaren eragileak

Haurren sexuaren jakitun izaten gara hura jaiotzen denetik, edota askotan jaio aurretik, eta horren arabera izan ohi dira sortzen diren itxaropenak eta era bateko edo beste bateko heziketa ematea. Freixasen esanetan (2001), pertsona bakoitzari irakatsi egiten zaio emakumezkoa edota gizonezkoa izaten, eta, hain zuzen ere, horretan eragiten dute genero sozializatzaileek (familia, eskola, berdinak, ingurunea, ikusentzunezko komunikabideak...). Sexuaren arabera sozializazio diferentziala jasotzen dute haurrek eta, Lobatoren esanetan (2006), aurretik ezarritakoari jarrera alternatiboak edo erresistentzia erakusten dioten haurrak hein batean zigortuta agertzen dira.

1.2.1. Familia

Helduak oro har, eta batez ere gurasoak, eredu dira haurrentzat eta haurrek haiei behatze hutsarekin badakite zeintzuk diren jendartean egokitzen hartutako jokabide edota balioak. Egun oraindik ohikoa da emakumezkoek etxeko zaintzaren ardura nagusia izatea eta gizonezkoek atsedena hartzeko unetzat jotzea etxean egotea. Horiek horrela, Reizabalek (2015) ondorioztatu bezala, neskek, haurrak direnean, familia beren ardura izan behar dela barneratzen dute; eta mutilek, etxeko beharretan ez dutela zertan parte hartu.

Bestalde, haurren itxura fisikoan ere paper garrantzitsua dute helduek. Orokorrean, helduak aukeratzen du haurra nola jantzi. Nekez aurkitzen dira goitik behera arrosa kolorez jantzita dauden mutilak; neskak bai, ordea. Edota neskei soineko, gona zein tutuak erosten zaizkie eta mutilei ez. Horrez gain, ohikoa izaten da neskek ile luzea eramatea, batzuetan apaingarriekin, eta mutilek ile laburra. Jostailuei dagokienez, oraindik estereotipatuak dira nagusi haurretan; ez da kasualitatea neskek oparizatzen panpinak eskatzea eta mutilek kotxeak. Helduaren esku dago hori errotik mozten saiatzea eta "jostailu neutroak" eskaintzea.

Halaber, gurasoek eta orokorrean helduek, haurren sexuaren arabera era bateko edo besteko tratua eskaintzen dute. Lópezek adierazi bezala (2003), neskekin kontaktu fisiko gehiago dago eta hitz ere gehiago egiten da mutilekin baino; gehiago dira neskei zuzendutako afektibitatezko keinuak eta hauskorrak balira bezala tratatuak izaten dira; mutilei jarrera oldarkorrek maizago onartzen zaizkie eta indarkeria erakusten duten

jolasetan parte-hartzen errazago uzten zaie; mutilen lorpenak esplizituki onartzen eta baloratzen dira eta nesken porrotak gehiago onartzen dira, besteak beste.

1.2.2. Ikus-entzunezko komunikabideak

Etengabe, eta badirudi konturatu ere egin gabe, gaude ikus-entzunezko komunikabideen eraginpean, genero rolen transmisioan mugarri direlarik. Izan ere, ikus-entzunezko komunikabideak ez dira soilik errealitate soziala islatzeaz arduratzen, haratago doaz, era sotil eta ez-zuzenean hura konfiguratzeko lortzen dute eta (Santos, 2000).

Haurren errealitatera hurbilduz, marrazki-bizidunetan egoera aldatzen doan arren, oraindik protagonisten gehiengoa maskulinoa izaten da eta neskak bigarren mailako pertsonai gisa agertu ohi dira, menpeko rola jokatuz (Reizabal, 2015). Iragarkiei dagokienez, telebista piztu besterik ez dago sexismoa puri-purian ikusteko. Helduei zuzenduriko iragarkietan, emakumea edertasun kanonen isla da, argala, polita eta altua. Kontsumoa bultzatzeko, eredu utopikoak jartzen dituzte bistan (Lomas, 2002). Horrela ez bada, emakumea etxea garbitzeko produktuen iragarkietan agertzen da, estereotipo hori indartuz. Gizonezkoen boterea azpimarratzea ere oso ohikoa izaten da iragarkietan, sarritan agertzen dira kotxe handien jabe, adibidez. Reizabalek adierazi bezala (2007), haurrei zuzendutako iragarkietan, mutilei zuzendurikoak zakarragoak izan ohi dira, biziagoak, indarrarekin lotura dutenak; neskei zuzendutakoak, lasaiak dira eta mintzaira afektiboa darabilte.

Jostailuen gaiari bide emanez, iragarkietara zein saltokietan jostailuek duten antolamendura begiratzea besterik ez dugu generoaren araberako sekulako banaketa egiten dutela jabetzeko. Oso nabarmena da egiten duten zatiketa. Katalogoetako orri batzuetan, sarritan atzealde arrosarekin, neskei zuzenduriko jostailuak daude (panpinak, sukaldeak, makilatzeako tresnak etab.) eta argazkietan jolasten dabiltzanak neskak dira; beste orri batzuetan aldiz, sarritan atzealde urdinarekin, mutilei zuzenduriko jostailuak daude. Dendetan ere, alde batetik neskei zuzendurik jostailuak aurkitzen dira eta beste aldetik mutilei zuzendurikoak. Horrek, rola erreproduzitzea dakar eta emakumetasun zein gizontasun eredu zehatza landu ohi dute: neskatoei zaintza edota etxeko lanak eta mutikoei lehiakortasuna edota oldarkortasuna (Hik Hasi, 2016).

1.2.3. Eskola

Ikastetxeak mistoak izateak ez du nahi esan genero rol eta estereotipoak transmititzen ez dituztenik. Hainbat autoreren esanetan, eskola mistoa gizonezkoentzako pentsaturiko eskolaren gainean sortu zen eta eskolak ez dizkie aukera berdinak eskaintzen neska eta mutilei, eta ez zaie berdina eskatzen (Hik Hasi, 2017). Aipatzekoa da, ikastetxeetan hezkidetzaren aldeko lan handia egin dela eta oraindik egiten ari dela eta guzti horrek fruituak eman dituela. Hala ere, haurrek genero estereotipoak segituan barneratzen dituztela ikus daiteke eta horrenbestez, ohikoa izaten da erreproduzitzea.

1.3. Eskola hezkidetzaren bidean

Aurretik aipatu ditugun eragileen artean, eskolari garrantzi berezia eman nahi izan diogu datozen lerroetan. Izan ere, gure ikergaia esparru horretan bertan aurkitzen da eta komenigarria deritzogu gaur egun ikastetxeek hezkidetzaren alorrean jokatzeko duten papera ikusirik, hezkuntzak gai honen inguruan izan duen ibilbidea labur azaltzea gaian bertan kokatzeko. Ondoren, hezkidetzari ere ataltxo bat eskainiko diogu, gai horren gainean oraindik asko baitugu ezagutzeko eta egiteko.

1.3.1. Ibilbide historiko laburra: eskola mistoaren sorreratik gaur egunera

60. hamarkadan eman ziren eskola mistoaren hastapenak Hego Euskal Herrian. Ordura arte, emakumezkoak eta gizonezkoak bereizita zeuden ikastetxeetan, klase edo zentro ezberdinetan aritzen ziren, genero aldetiko curriculum ezberdindua zeukatelarik. Emakumeak emazte zein ama on izateko hezten zituzten eta gizonezkoak ausarta izateko zein produktiorako prestatzeko. Eskola mistoaren sorrera aurrerapauso handia izan zen, curriculum bateratuaren sorrera ekarri zuelako, besteak beste (Garate, 2005). Hainbat autoreren ustez, teoria feministek horri lotuta sorturiko irizpideak ez ziren kontuan izan, ustez eskola mistoak berak jada berdintasuna eta normalkuntza ekarri zuen eta. Ez zen analisi sakonik egin gizarte patriarkalaren isla zen ikastetxeko egituraren gainean, zeinetan neska eta mutilak ustezko berdintasun batean bizi ziren (Urruzola, 1991).

Urteek aurrera egin ahala ikusi zen bateratze hori ez zela nahikoa izan genero arteko berdintasuna bermatzeko. Izan ere, gizartean ematen diren diskriminazio egoerak erreproduzitu ohi dira ikastetxean eta kalean kolektibo maskulinoak irabazten badu, ikastetxean ere hala egitea gertagarria izango da. Horiek horrela, ez da nahikoa ikastetxean neskek eta mutilek elkarlanean jardutea, Fernándezen ustetan (2013) hezkuntzaren funtzioa ez da genero ezberdintasunen ezarpena, ikasleak haien aniztasunean errespetatzea eta heztea baizik.

Gaur egun eskaintzen den hezkuntza oraindik androzentrikoa dela esaten dute hainbat autorek, genero maskulinoari eman zaizkion rolak baitira gehien bat erreproduzitzen direnak eta neskei hor tokitxo bat egiten zaiela esan daiteke. Izan ere, Arenasek (2006) dio orokortu den hezkuntza-eredua maskulinoa dela, hark sozialki duen onespina femeninoari gainjartzen baitzaio. Reizabalen esanetan (2015), lehia eta mendekotasun-harremanak bultzatzen dira, ezagutzaren transmisioak du garrantzia eta arlo sozio afektiboa alboratu egiten da. Horrenbestez, neskek arrakasta nahi izanez gero eredu horretara egokitu behar izaten dira.

Guzti horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkidetzaren garapena ezin daiteke ulertu Espainiako Estatukoa ez bada kontutan hartzen. Izan ere, bietan Frankismoaren amaieraren ondorioz etorritako trantsizio politikoarekin batera eman ziren aurrerapausoak. Ondorengo lerroetan hezkidetzak EAEn izandako garapena laburki azalduta agertuko da (Emakunde, 2005).

1978 eta 1985 urte artean, Trantsizioa deitu izan den epealdian, eman zen gizarte-aldaketarekin batera, taldekatze berriak sortu ziren eta mugimendu feministaren, sindikatuen zein hezkidetzako kolektiboen presentziak garrantzia hartu zuen. 1988an, Emakumearen Euskal Erakundea, Emakunde sortu zen. Azken horren ekintzekin nolabait, hezkidetzaren filosofia instituzionalizatu zen, hezkidetzaren gaineko inplikazio nabarmenarekin. 90. hamarkadan, hezkidetzako ekimenen sustapena eta garapena gauzatu zen Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legearen (LOGSE) eta EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren ezarpenaren bitartez. Urte oparo batzuen ostean, 2000ko hamarkada hasieran, geldialdia egon zen hezkidetzaren bultzatzeko bide berriak bilatzeko helburuarekin.

2013. urtean hezkidetza espresuki lantzeko lehendabiziko pausuak eman ziren EAEn. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (2013) sortu zuen 2013/14 eta 2015/16 ikasturteetarako. Esan beharra dago, bigarren Gida Plana 2019an argitaratua izan dela, "EAE-ko hezkuntza sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)" izenpean. Helburu estrategikoetan honako hauek aurki ditzakegu: Hezkuntza Saila eta hezkuntza-sistema hezkidetza-eskola ereduia sustatuko duten egituraz eta pertsonen hornitzea; ikastetxeek genero-ikuspegia beren kulturaren, politiketan zein jardunbideetan txertatzeari bultzada ematea eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea (Eusko Jaurlaritza, 2019).

1.3.1. Zer da hezkidetza?

Askotan esan ohi da hezkidetza neskak eta mutilak berdintasunean heztean datzala. Baina, zergatik izan behar gara neskak edo mutilak? Zergatik dugu pentsamendu binario hori hain barneratuta? Arenasek (2006) baieztatu bezala, argi dago haurrak eskolara joaten hasten direnerako haien generoaren araberrako jarrera eta horiekiko itxaropenak barneratuta dituztela. Bere esanetan, guzti horrek, haien kideekin izango dituzten harremanak eta jarrerak baldintzatuko ditu.

Horrenbestez, gaia bera espresuki lantzea komeni da, hezkidetzari bide emanez. Hezkidetzak generoaren eraikuntza bera zalantzan jartzen du eta, esan daiteke, genero estereotipoetatik at egotea helburutzat duen hezkuntza ereduia dela. Hezkidetzak garapena izan du eta gaur egun genero bien arteko parekidetasunetik haratago doa. Genero rola ez birproduzitzea eta sexu-genero sistema hierarkikoa haustea du helburutzat (UEU365, 2013). Izan ere, rol bakoitzak duen prestigioa kontutan izatekoa da: rol maskulinoa eremu publikoarekin dago lotuta eta, beraz, diruarekin eta autonomiarekin du lotura; rol femeninoak aldiz, eremu pribatuarekin, eta ez da ez ordaindua ez aitortua (López, 2003). Arestian esan bezala, aipatzekoa da eskolak sozializazio-eragile bezala daukan garrantzia. Irakasleek balio horiek nahita ez badituzte transmititzen, nola gertatzen da estereotipoen gaineko barnerapen eta erreproduktzio hain garbia? Egindako ikerketen arabera (Subirats, 2002), genero estereotipoen

errefortzua curriculum ezkutuan ematen da eta irakasleek ezarritako balioen bitartez erreproduzitzen dira.

Haur bakoitzaren identitatea aske eraikitzea ere bada hezkidetzaren eta hazkunde integralaren aldekoa ere bai (Ugarte, 2008). Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da haurrei espazio seguru eta aske bat eskaintzea. Bestalde, hezkidetzaren ezagutza feministak hezkuntzari egindako ekarpena izaki (Ugarte, 2013), esan beharra dago, hezkuntza ez dela soilik ikastetxeetan ematen, sozializazio-eragile orok hartzen duela parte horretan. Beraz, hezkidetzaren ardura komunitate osoarena izan beharko litzateke.

Horiek horrela, beharrezkoa ikusten dugu eskolan bertan ikerketa egitea eskola hezkidetzarekin hobekuntzari bide emateko. Hori kontutan izanda, lan honen bitartez, ikerketa horretara ekarpen txiki bat egin nahiko genuke, diagnosi mailako esku-hartze baten bitartez, bertan agertutako emaitzak etorkizunean hobetzeko estrategiarik egin nahi izanez gero kontutan izateko asmotan. Horretarako, Haur Hezkuntzako haurrek genero-rolak zein estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta helburu orokor gisa hartuta, helburu zehatz batzuk formulatu ditugu. Lanaren garapenean helburu zehatz bakoitzari erantzuten dion jardura xehe-xehe azalduko da. Helburu zehatz horiei erantzuteko asmotan galdera-eragile batzuk ere mahaigaineratu ditugu:

- Haur Hezkuntzako haurrek jendartean nagusi diren genero-estereotipoak neskekin edo mutilekin lotzen ote dituzten aztertzea: *Haur Hezkuntzako haurrek gizartean nagusi diren genero-estereotipoak genero jakin batekin lotzen dituzte?*
- Haur Hezkuntzako haurrentzat hain garrantzitsuak diren mozorroetan, irizpide estereotipatuak erabiltzen ote duten ikustea: *Haur Hezkuntzako haurrek mozorro estereotipatuak hautatu dituzte inauterien testuinguruan?*
- Haur Hezkuntzako haurrek haien egunerokotasunaren parte diren jostailuak neskekin edo mutilekin lotzen ote dituzten ikustea eta haien jostailurik gogokoena estereotipatuak den ikustea: *Haur Hezkuntzako haurrek jostailu jakin batzuk neskekin edo mutilekin lotzen dituzte?*
- Haur Hezkuntzako haurrek lanbideak genero jakin batekin lotzen ote dituzten aztertzea: *Haur Hezkuntzako haurrek lanbideak genero jakin batekin lotzen dituzte?*

2. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko metodo zientifikoaz eta horren gainean ezarritako pausuez baliatu gara. Lehenik eta behin, ikergeraia definitu eta, ondoren, hipotesia zein galdera-eragileak plazaratu ditugu. Horren ostean, ikerketa diseinatu, esku-hartzea aurrera eramane eta hortik lorturiko emaitzak interpretatu ditugu. Gero, emaitzen gaineko ondorioak atera eta, ostean, azken txostena idatzi dugu hobekuntza proposamen apala gehituz (Juaristi, 2003).

Ikerketa kualitatiboaren fidagarritasuna askotan zalantzan jarri da, ikerlariaren subjektibotasuna gehitzen zitzaiola argudiatuz. Cortesek (1997) esan bezala, ikerketa kualitatiboan, errealitatea ulertzea da helburu nagusia. Horrela, ikerketa "zientifikoki" ulertzea dakarrena ez da emaitzen orokortasuna, baizik eta gaia sakonki azaltzeko duen gaitasuna eta hau batez ere, ikerlariaren presentzia kritikoaren bitartez lortzen da. Ikerlaria errealitatea jasotzen ahalegintzen da, berak hautematen duen errealitatea eta azken finean parte hartzaileentzat existitzen dena, biltzen saiatzen da. Horiek horrela, ikerketa kualitatiboaren fidagarritasuna parte hartzaileek ikerlariari eskaintzen dizkioten eraikuntza mentalen irudikapen egokian dago. Horrenbestez, ikerketa-lan honetako datuei emandako tratamendua kualitatiboa izango da. Datu kualitatiboen osagarri gisa, zenbait momentutan datu kuantitatibo batzuk ere maneiatu ditugu.

Lan honen helburu nagusia genero rolen zein estereotipoek Haur Hezkuntzako ikasleengan nolako eragina duten ikustea izaki, diagnosi mailako ikerketa esku-hartzailea egitea erabaki dugu. Horretarako, Haur Hezkuntzako 5-6 urteko haurrek genero rolen zein estereotipoen gainean dituzten iritziak jasoko ditugu, zenbateraino dituzten barneratuta diagnostikatu ahal izateko. Informazioa biltzeko, haurren parte hartzeaz baliatuko gara, talde-proba batzuk eta elkarrizketa irekiak egin ditugularik. Lanaren garapenean azalduko ditugu zehatzago datu bilketarako tresnak eta landa lana.

3. Lanaren garapena

Landa lana aurrera eramateko, Bizkaiko kostaldeko herri txiki batera jo dugu, bertako eskola publikora zehazki. Ikerketa-eremua Haur Hezkuntzako 5-6 urteko 20 haurrek osatzen dute, 13 neskek eta 7 mutilek, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, esku-hartzearen diseinuari ekin diogu. Ikerketa-lan honen helburua Haur Hezkuntzako haurrek genero rolak zein estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta aztertzea izaki, lan enpirikoa lau ataletan antolatu dugu, bakoitzak helburu zehatz bati loturiko galdera-eragile bati erantzuten diolarik. Honelaxe daude antolatuta esku-hartzeak:

1) Haur Hezkuntzako haurrek jendartean nagusi diren genero estereotipoak neskekin edo mutilekin lotzen dituzten ikustea: jarduera hau istorio baten bitartez egin nahi izan da, izan ere, haurrek genero rolen eta estereotipoen inguruko mezu ugari jasotzen dituzte ipuinen bitartez eta haien egunerokotasunaren parte dira. Haurrek ustezko rol eta estereotipo femeninoak betetzen dituen haur baten istorio labur bat entzungo dute, pertsonaiaren generoa edota izena aipatu gabe. Ondoren, ulermeneko galdera batzuk erantzungo dituzte, hala nola, haurra nolakoa den edota zertan gustatzen zaion jolastea, istorioko protagonistaren gustuak birgogoratzeko. Horrez gain, pertsonaiari haien buruarena ez den izen bat jartzeko eskatuko zaie. Solasaldia aurrera joan ahala, momentuko egoera ikusirik hainbat galdera berri sortuko dira (*ikus 1. eranskina*).

2) Haur Hezkuntzako haurrentzat hain garrantzitsuak diren mozorroetan, irizpide estereotipatua erabiltzen ote duten ikustea: inauterien testuingurua aprobetxatuz, haurrentzat hain esanguratsuak diren mozorroak hartu dira aztergai. Horretarako, hurrei banaka zertaz mozorrotuko diren galdetuko zaie eta janzten direnean, mozorro horiek aztertuko dira haur bakoitzaren sexuaren arabera estereotipatuta dauden ikusteko asmotan. Haurrek ahoz esan arren, haiek eginiko hautuak orri batean idatziko dira ikertzaileak garbiago izateko.

3) Haur Hezkuntzako haurrek haien egunerokotasunaren parte diren jostailuak neskentzako edo mutilentzako jostailu gisa sailkatzen ote dituzten ikustea eta haien jostailurik gogokoena estereotipatua den ikustea: haurrek egunero erabiltzen dituzte jostailuak eta jolasten ari diren bitartean horien arabekoak izaten dira erakusten dituzten jarrerak. Horiek horrela, hurrei pantailan bi jostailu-multzo erakutsiko zaizkie, alde batetik, estereotipo femeninoekin bat datozenak (*barbie*-ak, panpina, printzesen koroa, adarbakarra eta ile-apaindegiko tresnak) eta bestetik, estereotipo maskulinoekin bat datozenak (traktorea, kotxeak, erremintak, baloia eta super-heroiak). Lehenik eta behin, multzo bakoitzetik jostailu gogokoena hautatu beharko dute eta, gero, gogokoan duten multzoa aukeratuko dute banaka. Ondoren, solasaldi bat izatera bideratuko

dituzten galdera batzuk egingo zaizkie haien iritzia ezagutzeko asmotan, hala nola, jostailu-multzo batetik bestera desberdintasunik ba ote dagoen eta ea zein den haien jostailurik gogokoena (*ikus 2. eranskina*).

4) Haur Hezkuntzako hurrek lanbideak genero jakin batekin lotzen ote dituzten aztertzea: hurrek idazteko gaitasunik ez dutenez eta haien erantzunetan elkarreraginik izan ez dezaten, banaka galdetegi bat egingo zaie. Gelan lanbideen gaia lantzen hasteko asmoa zeukaten eta, gainera, hurrek haien ingurunearekin lotzen dituzte lanbideak, batez ere helduekin eta gurasoekin; beraz, esanguratsuak dira haientzat. Jarduera honetan, haur bakoitzari lanbide bat esan eta neskena, mutilena edo biena den esan beharko dute. Hamar lanbideren inguruan galdetuko zaie hurrei, horietako batzuk neutroak izango dira, beste batzuk tradizionalki femeninotzat jo direnak eta beste batzuk maskulinotzat hartu izan direnak (mekanikaria, medikua, irakaslea, suhiltzailea, astronauta, sukaldaria etab.) (*ikus 3. eranskina*). Galdetegiaren atzetik, haur bakoitzak marrazki bat egingo du nagusitan izan nahi duen lanbidea irudikatuz.

Hurrek oraindik idazteko gaitasunik ez dutenez, marrazkia izan ezik, jarduera guztiak ahoz egingo ditugu eta, aurretik baimena eskatuta, ahots-grabagailuarekin grabatuko ditugu proba guztiak sakonki aztertzeke asmoz.

Jarduerak diseinatu eta gero, ikastetxeko irakaslearekin ordutegia koordinatuz, horien antolaketa egin da. Orokorrean, gelan korroan egoteko izaten dituzten uneez baliatuko gara jarduerak egiteko, banakako galdetegian izan ezik. Kasu horretan, hurrekin korridoreko eserlekuan egongo gara, arratsalde bitan.

Talde handiko jarduerak:

Mozorroen aukeraketa (2. proba)	Istoria (1. proba)	Jostailuen aukeraketa (3. proba)
Martxoak 1 Gelan 11.45/12.00	Martxoak 13 Gelan 11.45/12.10	Apirilak 30 Gelan 15.00/15.20

2. taula: talde handiko esku-hartzeen egun eta orduak

Banakako galdetegia:

Lanbideen galdetegia (4. proba)	Lanbideen marrazkia (4. proba)
Martxoak 27/28 Korridorean, banaka 14.45/15.30 Haur bakoitzarekin 3-5 minutu artean	Martxoak 27/28 Gelan, banaka 14.50/15.35 Haur bakoitzak 5-10 minutu inguru

3. taula: banakako esku-hartzeen egun eta orduak

4. Emaitzak

Landa lanean jaso dugun informazioa aztertuko dugu hurrengo atalean. Arestian aipatu ditugun lau kategorien arabera sailkatuko dugu azterketa eta kategoria bakoitzaren barruan bi azpikategoria transbertsal zehaztuko ditugu: haurrek genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak eta haurrek genero rolen zein estereotipoen hausketa edota erreprodukzio eza erakusten duten zantzuak.

Ikerketan parte hartu duten haurren datuen pribatutasuna mantentzeko helburuarekin, ondorengo orrietan benetakoak ez diren izenak agertuko dira.

4.1. Istorio baten bitartez rol eta estereotipo jakinak neskekin edo mutilekin lotzea

Lehen azaldu bezala, jarduera honetan haurrek ustezko rol eta estereotipo femeninoak betetzen dituen haur baten istorio labur bat entzungo dute. Horren ostean, ulermeneko galdera batzuk erantzungo dituzte eta protagonistari izen bat esleituko diote. Horrez gain, genero estereotipoekin lotura duten egoera batzuk agertuko dira eta horien gainean hitz egingo dute.

- Haurrek genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak

Azpiatal honetan bi alderdiren gainean hitz egingo da, batetik, istorioko protagonistari haurrek jarri dioten izenaz eta, bestetik, haurrek protagonistari esleitzen dioten generoaz. Alde batetik, hurrei istorioko protagonistari norberarena ez den izen bat jartzeko eskatutakoan, joera argi bat nagusitu da: gehienek neska-izena jarri diote protagonistari. Hogei haurretik hiru izan dira soilik horrela egin ez dutenak. Nereak,

adibidez, Picasso izena jarri dio, duela gutxi gelan margolariaren koadroak aztertzen ibili direnez ezaguna baitzen haientzat; Picassok zein izen daukan galdetzerakoan, Pablo erantzun eta batzuek esan dute Pablo ezin zaiola jarri. Hala ere, zergatik galdetzerakoan ez dute arrazoitu erantzuna.

Gero hurrei protagonista neska edo mutila den ba ote dakiten galdetzerakoan, hurrek orokorrean, istorioko protagonistaren gustuak (mozorrotzea, ile-apaintzailearenak egitea, balletera joatea etab.) neskekin lotu dituzte, beraz, gailendu den erantzuna protagonista neska dela izan da.

Istorioaren errealitateaz gain, gaia haurren egunerokotasunera hurbiltzeko asmotan, egoera jakin batzuk azaleratu ditugu. Egoera horien aurrean hurrek erakutsi dituzten erreakzioek genero rolen eta estereotipoen barneratzea islatzen dute gehien bat. Alde batetik, mutil bat eta neska bat ezpainak margotuta etorriko balira zerbait gertatuko litzatekeen galdetu diegu hurrei. Kasu horretan, Eiderrek esan du mutil bat ezpainak margotuta etorriko balitz gelara, zergatik margotu dituen galdetuko liokeela eta horren ostean ea neska bat izan balitz berdina esango ote zion galdetuta "neskei ez nieke galdetuko neskak direlako" erantzun zuen; eta gero "mutilak eta neskak desberdinak dira" gehitu zuen. Bestalde, mutil bat eta neska bat gelara soineko berberarekin datozela imajinatzeko planteatu dugunean, batzuei barrea atera zaie, egoera ezohikotzat jo dutelarik. Horren harira, Iratik ondorengoa esan du "neskak agian soineko arrosa eramango du eta mutilak urdina".

- Hurrek genero rolen zein estereotipoen hausketa edota erreprodukzio eza erakusten duten zantzuak

Haurrak gustura aurkitu dira istorioa entzuten, gustatu zaie protagonistaren izaera. Ondoren, ulermenaren gainean egindako galderetan ez dute behin ere protagonistaren generoa aipatu, hau da, ez zaienean zuzenki galdetu ez dute haurra neska dela esan.

Goian esan bezala, protagonistari izena jartzerako orduan, hiru haur izan dira soilik neskarena ez den izena jarri diotenak, kasu isolatuak izan dira. Unai "Jose Mari" eta Aitorrek "Aitona Paulino" izena jarri diote. Momentuan grazia egitearren egin dutela nabaria da, baina behintzat protagonistak izen hori izateko aukera duela ere erakutsi dute. Halaber, Nereak "Picasso" izena jartzeak ere erakusten du ez diola genero femeninoa esleitu protagonistari.

Haurren errealitatera hurbiltzeko asmotan, istorioa kontatu ostean, haiei zertan jolastea gustatzen zaien galdetzerakoan, ez dute jolas estereotipaturik aipatu: margotzea, antzeztea edota mozorrotzea gustatzen zaiela esan dute. Horrez gain, protagonista neska edo mutil bezala imajinatu duten galdetzerakoan, salbuespen moduan agertu dira erantzun ez estereotipatuak. Aitorrek eta Unaik mutila imajinatu dutela esan dute eta Jarek protagonista "neska zein mutila izan daiteke" esan du. Bestalde, arropen inguruan hitz egiten hasi garenean, agertu dira genero rolen eta estereotipoen barneratzea erakusten ez duten zantzu gutxi batzuk. Jarek esan du mutilek ere gona eraman dezaketela eta gero Aranek, ezpainak ere margotu ditzaketela. Eneritzek, "neskek eta mutilek gauza berdinak jantzi ditzakete" ere esan du.

4.2. Inauterien testuinguruan mozorroa hautatzea

Lanaren garapenean azaldu dugun bezala, jarduera honetan, inauterien testuingurua kontutan hartuta, haurrek inauteriak baino lehen hautaturiko mozorroa eta mozorrotzeko egunean zer jantziko duten hartuko da kontutan, askotan ez baita haurrek aurretik esandakoarekin bat etortzen. Atal honetan, haurrek egindako hautuen inguruan eta horiek transmititzen duten mezuaz hitz egingo dugu.

- Haurrek genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak

Mozorroen hautaketan eta jantzerako orduan, nesketan zein mutiletan nabarmendu den joera erabat estereotipatua izan da, alegia, neska zein mutilek aukeraturiko mozorroetan, jendarteak emakumeekin zein gizonekin lotzen dituzten estereotipoak izan dira nagusi. Arestian aipatu bezala, Castillo eta Tornerok (2012) bereizi zituzten printzesen eta super-heroien irudiak erreproduzitu dituzte haurrek. Labur esanda, printzesek edertasuna eta pasibotasuna erakusten dute, eta super-heroiek, indarra eta boterea. Zentzu horretan, neskei dagokienez, hamahiru neskatik sei printzesa jantzi dira, lau adarbakar eta bat animatzaile. Gainera, guzti guztiek izan dute aurpegia erabat makilatuta eta brillantinaz josita. Mutiletan, zazpitik sei super-heroiz jantzi dira eta bat poliziaz.

Haurrak gelan egon diren bitartean eduki duten jarreraren gaineko behaketa egiterakoan, haien mozorroekin bat zetozen keinuak erakutsi dituzte. Mutilak, orokorrean, oso zakar

ibili dira, urduri eta grinatsu, haien ustezko botereak erabiliz. Neska gehienak, ordea, haien soinekoak mugi zitezten bueltak ematen ibili dira.

- Hurrek genero rolen zein estereotipoen hausketa edota erreprodukzio eza erakusten duten zantzuak

Jarduera honetan ez da genero rolen zein estereotipoen hausketa erakusten duen zantzu handirik aurkitu. Hala ere, izan dira salbuespenak eta horiexek aipatuko ditugu hemen. Haur bik orokorrean janzkeran zein haien jarreretan ez dute genero estereotiporik erakutsi: Nikole eta Eider pailazoz jantzi dira, baina ez dira mozorro feminizatuak izan. Bestalde, haur bat ez da gustura aurkitu bere mozorroarekin, izan ere, printzesa jantzita etorri den neska batek esan du ez zegoela gustura mozorroarekin eta ez zuela nahi herriko desfilera joan.

4.3. Jostailu-multzoen sailkapena eta jostailu gogokoenaren aukeraketa

Jostailuei dagokienez, lehendabizi, haurrei jostailu-multzo bi banaka erakutsiko zaizkie pantailan: alde batetik, estereotipo femeninoekin bat datozen jostailuak eta bestetik estereotipo maskulinoekin lotzen direnak. Hurrek multzo bakoitzetik jostailu gogokoena hautatu beharko dute eta, gero, gogokoen duten jostailu-multzoa aukeratuko dute banaka. Ondoren, hurrekin jostailuen inguruan elkarrizketa bat izango dugu eta azkenik, haien jostailu gogokoena hautatu behar izango dute. Datozen lerroetan, hurrekin lortutako emaitzen gainean hitz egingo dugu.

- Hurrek genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak

Hasteko, jostailu-multzoak banaka erakutsi eta gehien zer gustatu zaien galdetzerakoan, salbuespen moduan, agertu dira genero rolen eta estereotipoen barneratzea erakusten dituzten zantzuak. Izan ere, estereotipo maskulinoekin lotzen diren jostailuen multzoa erakutsi ondoren, hiru neskak multzo horretatik jostailu bakar bat ere ez zaiela gustatzen esan dute.

Bestalde, multzo bien artean desberdintasunik dagoen galdetzerakoan, hurrek segituan erakutsi dute generoaren araberako banaketa jostailuetan. Iratik bat-batean erantzun du "jostailu batzuk mutilenak dira eta beste batzuk neskenak". Horrez gain, ea neskenak diren jostailuak eta mutilenak direnak badauden galdetzerakoan, aho batez erantzun dute baietz. Eta jostailu-multzo bakoitzaren irudia aurrean zeukatela nortzuk erabiltzen

ote dituzten galdetzerakoan, erantzun estereotipatua eman dute. Halaber, zein jostailu-multzo nahiago duten galdetzerakoan beren sexuaren arabera aukeraketa estereotipatua egin dute gehienek, batek izan ezik. Orokorrean, beraz, emaitzak estereotipatuak izan dira.

Jarduera honetan, haurren errealitatera hurbiltzeko egoera batzuk mahaigaineratu dira. Alde batetik, mutil bat gelara panpinarekin etortzea; eta, bestetik, neska bat etortzea panpinarekin. Aitor gelara panpinarekin datorren egoera azaleratzerakoan, haurrek barre egin dute, haur horren maskulinitasuna kolokan jarriko balitz bezala; Jarek gelara panpina ekartzea aipatzeak aldiz, ez die graziarik egin.

Bakoitzak zer jostailu nahi duen eduki galdetzerakoan, orokorrean nabarmendu den joera estereotipatua izan da. Goian aipatu dugun bezala, haurrek jostailuen bitartez, haien generoaren arabera egokituriko rol zein estereotipoak erreproduzitzen dituzte eta emaitza hori nabarmendu da orokorrean, neskek zaintzarekin eta kolore arrosarekin loturikoak eta mutilek, brikolajearekin edo indarrarekin loturikoak (Reizabal, 2015). Izan ere, ia neska guztiek *barbie*-ak, adarbakarrak zein askotariko panpinak nahi dituztela esan dute eta mutilek erremintak, super-heroiak edota kotxea.

- Haurrek genero rolen zein estereotipoen hausketa edota erreprodukzio eza erakusten duten zantzuak

Jostailu-multzoak banaka erakusterakoan, mutil guztiek estereotipoen hausketa erakutsi dute, izan ere, guztiei gustatu zaie estereotipo femeninoekin bat datorren jostailu-multzotik jostailuren bat. Inork ez du esan bakar bat ere ez duela gustuko.

Bestalde, aurreko atalean erakutsitako estereotipoen erreprodukzio batzuei haur gutxi batzuek erantzun egin diete, genero rolen eta estereotipoen hausketa erakutsiz. Iratik esandakoari, hau da, "jostailu batzuk mutilenak dira eta beste batzuk neskenak" iritziari, Laiak eta Eñautek erantzun diote bakoitzak nahi duen jostailuekin jolas dezakeela. Horrez gain, jostailu-multzo gogokoenaren aukeraketan ere agertu dira hausketaren zantzuak, Laiak multzo biak gogoko dituela esan du eta, geroxeago honako hau gehitu du: "nahiago dut mutilek eta neskek batera jolastea horrela hobeto pasatzen dugu". Amaitzeko, jostailu gustukoenaren aukeraketan, salbuespen gisa, Leirek baloia duela gustukoen esan du, maskulinitzat jo izan den jostailua, hain zuzen ere.

4.4. Lanbideak genero jakin batekin lotzea

Haurrei banaka lanbideen gaineko galdetegi xume bat egingo diegu; haur bakoitzari lanbide bat esan eta neskena, mutilena edo biena den esan beharko dute. Hamar lanbide sailkatzeko eskatuko zaie haurrei, horietatik batzuk femeninotzat jotakoak izan dira, beste batzuk maskulinotzat jotakoak eta beste batzuk neutroak. Horren ostean, haurrei marrazki bat egiteko eskatuko zaie, haien etorkizuneko lanbidea irudikatuz.

- Haurrek genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak

Alde batetik, haurrei galdetegiko galderak ahoz galdetu dizkiegu eta nahiko erantzun sinpleak jaso ditugu orokorrean, elkarrizketak ez dira hain sakonak izan. Hala ere, haurrek lanbideetan egindako sailkapenetan genero rolen zein estereotipoen barneratzea erakusten duten zantzuak agertu dira. Izan ere, Arbaizak esan bezala (2000), XIX. mendetik aurrera, emakumezkoak zaintza lanarekin lotu izan dira eta gizonezkoak produkzioarekin zein errekonozimenduari. Beraz, ez da harrizkeoa, haurrek lanbideen generoaren araberrako sailkapena egiterakoan, emakumezkoak zaintza lanekin lotzea eta gizonezkoak prestigioa duten lanbideekin. Bestalde, Reizabalek (2015) erakutsitako estereotipo femenino eta maskulinoen taulan (*ikus 5. eta 6. orrialdeetako taula*) azalduko rolekin bat dator haurrek egindako lanbideen sailkapena: lan fisikoak gizonezkoekin lotzen dituzte eta etxeko lanekin lotura dutenak emakumezkoekin.

Emaitzek erakusten duten bezala, hamar lanbidetatik sei genero bienak direla esan dute haurrek. Hala ere, emaitzak banaka aztertzea ere komenigarria da (*ikus 4. eranskina*). Haur gehienek gizonezkoekin lotu dituzten lanbideei erreparatu, ikus daiteke lanbide horiek lan fisikoarekin eta heroitasunarekin loturik daudela, rol maskulinoekin. Izan ere, mekanikariak, suhiltzaileak eta astronautak mutilen lanbidetat jo ditu haurren gehiengoak. Horrez gain, garbitzailearen lanbidea inork ez du soilik gizonezkoen lanbidetat jo; azken hau, etxeko lanekin loturiko lanbidea izanik.

Haur gehienek emakumezkoekin lotu dituzten lanbideetan arreata jarriz gero, esan beharra dago haur gehienek lanbide bakarra lotu dutela soilik emakumeekin. Lanbide hori garbitzailearena izan da, zeina, aurretik esan bezala etxeko lanekin eta nolabait zaintzarekin loturik dagoen. Bestalde, soilik emakumezkoen lanbidetat jo ez dituzten ogibide gehienak rol maskulinoekin loturikoak izan dira, hala nola, mekanikaria, suhiltzailea, autobuseko gidaria, futbolaria, astronauta eta jatetxeko sukaldaria. Halaber, medikua, irakaslea eta dantzaria haur gehienek genero bien lanbidetat sailkatu duten

arren, bigarren aukera bezala, emakumezkoen lanbidea gailendu da. Horrez gain, lanbideak genero biek in lotu dituzten artean neskak nagusitu dira proportzioan, mutilek, orokorrean, jarrera estereotipatuagoa erakutsi dutelarik.

Aipatzekoa da, haurrek egindako sailkapenez gain, agertu direla genero rolen eta estereotipoen erreprodukzioa erakusten duten iruzkinak ere. Izan ere, Iratiri suhiltzailearen inguruan galdetzerakoan, segituan erantzun du mutilena dela eta ondoren honako hau gehitu du: "neskek ez dakite egiten hori eta!". Horrez gain, Aitorri sukaldariari buruz galdetzerakoan, ez digu azalpena amaitzen utzi eta, segituan neskena esan du; baina esaldia bukatutakoan eta jatetxeetan lan egiten dutenei buruz ari ginela entzuterakoan, aldatu eta lanbidea neskena zein mutilena dela esan du.

Beste alde batetik, haurren marrazkietan (*ikus 5. eranskina*) argi eta garbi ikusi da gehienek haien etorkizuneko lanbidetzat jo dituztenak generoaren arabera estereotipatuak izan direla. Goian agertu den Reizabalen (2015) estereotipoen taulan (*ikus 5. eta 6. orrialdeetako taula*), emakumezkoek esleitzen zaizkien nortasun-ezaugarrien artean, besteekiko dedikazioa agertzen da eta ezaugarri fisikoetan edertasuna; gizonezkoek esleituriko roletan brikolajea agertzen da eta ezaugarri fisikoetan, indar eta kemen fisikoa ere badago. Estereotipo horiek haurrek marrazturiko etorkizuneko lanbideetan argi islatzen dira. Izan ere, nesketan, ile-apaintzailea gailendu da eta, bestela, gehienek zaintzarekin loturiko lanbideak marraztu dituzte. Nabarmenezkoa da Eneritzek bere etorkizuneko lanbide bezala ama izatea ikusten duela. Mutiletan aldiz, gauzak konpontzearekin zerikusia daukaten lanbideak gailendu dira, hala nola, mekanikaria edota igeltseroa. Horiek horrela, mutilen marrazki guztietan islatu da genero rolen eta estereotipoen erreprodukzioa.

- Haurrek genero rolen zein estereotipoen hausketa edota erreprodukzio eza erakusten duten zantzuak

Lanbideen sailkapenean haur gehienek erakutsi duten joera lanbideak bi generoekin lotzea izan da. Gainera haur gehienek lanbide bat genero konkreturen bati esleitu diotenean, lanbide berbera genero biena dela esan duten haurren kopurura ez da alde nabarmenik egon. Horiek horrela, haurrek aukera berdintasunean pausu bat eman dutela ikus daiteke, lanbideen sailkapenean generoaren araberrako muturreko erantzunik ez baita agertu.

Aurretik aipatu dugun bezala, helduek hurrei eskaintzen dizkieten ereduak mugarri dira haien usteak eraikitzerako orduan. Hortaz, garrantzia eskaini nahi genioke hurrei estereotipoak hausten dituzten ereduak erakusteari. Jarduera honen emaitzetan argi islatu da hori, izan ere, haurren txangoetako autobuseko gidaria emakumezkoa da eta batek izan ezik, haur guztiek genero bien lanbidea dela esan dute.

Galdetegi honetan, salbuespen bezala, lanbide guztiak genero biek in lotu dituzten bi haur egon dira, biak neskak. Nikolek eta Laiak, galdetegian bertan, argi eta garbi esan dute lanbide guztiak direla bai neskenak eta bai mutilenak. Nikoleri mekanikariari buruz galdetzerakoan honako hau erantzun du: "ni joaten naizenean bakarrik mutilak ikusten ditut". Ea lanbide hori mutilena zen galdetzerakoan, ordea, ezetz erantzun du, biena dela, lanbide guztiak bezala.

Marrazkiei dagokienez, salbuespena izan dira estereotipoen erreprodukzioa erakutsi ez duten kasuak. Nesketan haur bik ertzainaren irudia marraztu dute eta batek astronautarena. Bi lanbide horiek maskulinoztat jo izan dira, boterea eta prestigioa erakusten baitute, gizonezkoen estereotipoak, hain zuzen ere (Reizabal, 2015).

5. Ondorioak

Egindako ikerketaren harira, esan beharra dago planteaturiko hipotesia bete egin dela. Batez ere, haurren jarreran eta iruzkinetan nabarmendu da hori, izan ere, aukeraberdintasunaren teoria askok oso barneratuta daukate, baina gero nabari da ez dutela praktikan jartzen. Zentzu horretan, Haur Hezkuntzako etapa erabakigarria da; horrenbestez, lantzen ari garen gaira hurbilduz, ezin daiteke ukatu eskolak daukan garrantzia genero-identitatea eraikitzerako orduan. Hala ere, gaur egungo umeei oztupoak aurkitzen dituzte genero-identitatea modu askean garatu ahal izateko. Ikasgela, gizartearen isla da eta hurrek bertara daramate aurretik familian zein gizartean jasoriko esperientzia. Aldatzen doan arren, argi dago oraindik genero araberako zatiketa barneratuta izaten dutela ikastetxeko etapa hasterakoan.

Emaitzetan orokorrean islatu den bezala, hurrek genero estereotipoak barneratuta izatea eta horiek erreproduzitzea ez da kasualitatea. Zaila da haientzat mutil bati ile-apaintzailearenak egitea gustatzea edota balleta egitea ulertzea, gainera, barregarria iruditzen zaie. Kontu handiz ibili beharra daukagu helduok eta hezitzaileok, maiz

konturatu gabe zabaltzen baititugu mezuak, haurren pentsamenduaren eraikuntzan eraginez eta genero estereotipoak indartuz (Subirats, 2002).

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, Haur Hezkuntzako haurrek garbi erakutsi dute sexu bakoitzari lotzen zaizkion genero rolen arabera mozorroa aukeratu dutela; eta, zeharka, mozorro horiek transmititzen dituzten balioak barneratu dituzte haien generoaren arabera (Castillo eta Tornero, 2012). Komunikabideetako ereduak bat datoz Reizabalek (2015) egindako estereotipo femenino zein maskulinoen banaketan; gure kasuan bertan oso ohikoa izan da mutilek nolabait super-heroiek erakusten dituzten rolak erreproduzitzea eta neskek, ordea, printzesenak. Horren harira, jostailuetan egindako banaketa ikusirik, oraingoan ere ezin daiteke ukatu komunikabideek erakusten dituzten ereduak eragina izan dutela haurrek jostailuen gainean egiten dituzten hautu zein sailkapenetan (Hik Hasi, 2016).

Lanbideen gaiari bide emanez, haurren errealitate hurbildutakoan, garbi ikusi da oraindik gai honen gainean asko dagoela egiteko. Izan ere, etorkizuneko lanbidea irudikatu dutenean, neskek haien burua zaintza lanekin zein edertasunarekin lotu dute eta mutilek indar fisikoarekin (Reizabal, 2015). Hala ere, ikusi da haurrek haien errealitateaz kanpoko sailkapenetan erakutsi dutela genero rolen eta estereotipoen erreproduzio eza; lanbideak genero biei esleitzea ohikoa izan baita. Eraitza pozgarria den arren, ez du esan nahi haurrek lanbideak genero jakin batekin lotzen ez dituztenik, aurretik ikusi dugun bezala.

Horiek horrela, ez da nahikoa ikastetxearen aldetik hezkidetzatza txertatzeko borondatea izatea, haurrek gizartean etengabe eredu ez-hezkidetzatzaileak ikusten dituzte eta; behar-beharrezkoa da gai honen inguruan ere, beste askorekin izaten den bezala, rol-aktiboa izatea eta esku-hartzea. Gainera, ezinbestekoa da femeninoztat eta maskulinoztat jotzen diren balore positiboak hartzea eta horren arabera, pertsona oso bat eraikitzea bere sexua kontutan izan gabe.

Ikerketa-lan hau, aletxo bat izan da eskola hezkidetzatzailearen bidean eta ikusi da oraindik asko dagoela egiteko. Gure esparrura hurbilduz, garrantzitsua deritzogu gai hau etorkizunean sakonago lantzeko hobekuntzarako estrategiaren bat proposatzeari. Alde batetik, haurren ipuinak aukeratzeko orduan, hezkidetzatzaileak izatea irizpide bat izan

beharko litzateke, ipuinaren bitartez landu nahi den gaia edozein izanda ere. Bestalde, gelako materiala ez estereotipatua izatea berebizikoa izango da, hurrek mozorroak zein jostailuak darabiltzaten bitartean edozein rol jokatu ahal izateko. Halaber, helduen ereduaren garrantzia azpimarratuz, ikastetxean bertan interesgarria litzateke gurasoen lanbideen berri izatea eta gelan horien bisitak jasotzea, estereotipo-hausketa erakusten duten ereduak erakutsiz.

Lan honen bitartez, ekarpen txiki bat egin nahi izan da etorkizunera begira hezkidetzari bultzada emateko asmotan. Esan beharra dago gizartean hain txertaturik dagoen generoaren araberrako dikotomia hausteko ezinezkoa dela eskolan jartzea pisu guztia, sistema osoa dela aldatu behar dena eta ikastetxean horren aldeko pausuak eman daitezkeen arren, eragile guztien kontua da hori gauzatzea. Izan ere, ikusi dugunez, eragile guztiak dira genero rolen eta estereotipoen erreprodukzioan laguntzen dutenak. Eragile ezberdinen artean sareak osatzen direnean eta konpromiso komuna izaten dugunean, gizarte hezkidetzaillearen eraikuntzari bide emango zaiola deritzogu.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Arbaiza, M. (2000). La construcción social del empleo femenino en España (1850-1935) [linean]. *Arenal: Revista de historia de mujeres*, 9(2), 215-239. 2019-03-20an berreskuratua <http://www.ehu.es/ojs/index.php/HC/article/view/15900/13812>-tik.

Arenas, G. (2006). *Triunfantes perdedoras: la vida de las niñas en la escuela*. Bartzelona: Graó.

Brullet, C. eta Subirats, M. (2002). Rosa y azul: la transmisión de los géneros en la escuela mixta. In A. Agirre, T. Alario, C. Brullet, M.E. Carranza, A. González... C. Vega (Ed.), *Mujer y educación: Educar para la igualdad, educar desde la diferencia* (9. atala, 133-169 orr.). Bartzelona: Graó.

Castillo, E. eta Tornero, I. (2012). Análisis de los valores que trasmiten los disfraces en la etapa de Educación Infantil y propuesta de modificación para su inclusión en clase de Educación Física [linean]. *EmásF: revista digital de educación física*, (14), 81-91. 2019-04-30ean berreskuratua <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3859399>-tik.

Cortes, G. (1997). Confiabilidad y validez en estudios cualitativos [linean]. *Educación y Ciencia. Revista de la Facultad de Educación de la Universidad Autónoma de Yucatán*, 1(1), 15, 77-82. 2019-05-13an berreskuratua, http://webcache.googleusercontent.com/search?q=cache:n06w_DHiMEJ:www.educacionyciencia.org/index.php/educacionyciencia/article/view/111+&cd=2&hl=es&ct=clnk&gl=es-tik.

Emakunde (2005). *Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. 2018-12-08an berreskuratua http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe.21.coeducacioncapv.eus.pdf -tik.

Eusko Jaurlaritzaren (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2019). *EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean (2019-2023)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Fernández, N. (2013). Neskak, mutilak eta LOMCE. *Pikara online magazine*. 2018-12-01ean berreskuratua, <https://www.pikaramagazine.com/2013/11/neskak-mutilak-eta-lomce/tik>.

Freixas, A. (2001). Entre el mandato y el deseo: la adquisición de la identidad sexual y de género. *La educación de las mujeres: nuevas perspectivas*, 25, 23-31. Sevilla: Universidad de Sevilla.

Garate, G. (2005). Hezkidetzaren detaile sutilen indarra [linean]. *Hik Hasi*, 1 (96). 2018-11-27an berreskuratua, <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20050301/hezkidetzaren-detaile-sutilen-indarra-tik>.

Hik Hasi (2016). Jostailu arrosa eta urdinetatik harago [linean] *Hik Hasi: albistegia*. 2019-05-06an berreskuratua <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20160225/jostailu-arrosa-eta-urdinetatik-harago-tik>.

Hik Hasi (2017). Eskola feministarantz. Generoaren motxila husten [linean] *Hik Hasi: albistegia*. 2019-05-28an berreskuratua <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20170307/eskola-feministarantz-generoaren-motxila-husten-tik>.

Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, 2019-04-12an berreskuratua <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>-tik.

Lobato, E. (2006). Construyendo el género. La escuela como agente coeducador. *Coeducación, espacio para educar en igualdad*. 2018-12-03an berreskuratua, http://www.lazoblanco.org/wp-content/uploads/2013/08manual/bibliog/material_masculinidades_0390.pdf -tik.

Lomas, C. [koord.] (2002): El aprendizaje de las identidades femeninas y masculinas en la cultura de masas. In A. Agirre, T. Alario, C. Brullet, M.E.Carranza, A. González... C.

Vega (Ed.), *Mujer y educación: Educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. (7. atala, 95-111 orr.). Barcelona: Graó.

López, I. (2003). *Coeducar para la conciliación de la vida familiar y laboral. Manual didáctico para el profesorado infantil (3-6 años)*. Koslada: Kosladako Udala. 2019-03-02an berreskuratua https://www.fucomi.com/redxana/documentos/Mat_180_manual_conciliacion_infantil.pdf-tik.

Martínez, V. (1999). Algunas reflexiones sobre el género. *Revista Cubana de Salud Pública*, 25(2), 129-142. 2018-12-13an berreskuratua http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-34661999000200004&lng=es&tlng=pt-tik.

Reizabal, L. (2007). Generoari buruzko ezagutzaren garapena. *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte*. (369-387 orr.). Bilbo: UEU.

Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida: familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU eta EHU.

Ruiz, J. (2014). *Genero rolak eta estereotipoak Lehen Hezkuntzan*. (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa. 2019-05-29an berreskuratua https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/14047/TFG_Ruiz_Ulacia.pdf?sequence=1&isAllowed=y-tik.

Sánchez de Madariaga, I. (2009). *El género en la investigación*. Madril: Ministerio de Ciencia e Innovación. 2018-12-17an berreskuratua http://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Investigacion/FICHEROS/El_genero_en_la_investigacion.pdf-tik.

Santos, M. A. [koord.] (2000): *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. Barcelona: Graó.

Santos, M.A. (2002). *Curriculum oculto y construcción del género en la escuela*. Málaga: Universidad de Málaga. 2019-03-03an berreskuratua http://webcache.googleusercontent.com/search?q=cache:V22YaS94TfwJ:catedraunesco.dh.unam.mx/catedra/CONACYT/08_EducDHyMediacionEscolar/Contenidos/MODUL

[OS/Sesion_7/Contenidos/1_curriculum.oculto.y.construccion.del.genero.en.la.escuela%2520Santos%2520Guerra.pdf+&cd=1&hl=es&ct=clnk&gl=es](#)-tik.

Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. [linean]. *Revista Iberoamericana De Educación*, 1(6), 49-78. 2018-12-14an berreskuratua <http://red.pucp.edu.pe/ridei/files/2011/08/110416.pdf> -tik.

Subirats, M. (2002). Rosa y azul: la transmisión de los géneros en la escuela mixta. *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. (8. atala, 149-161.orr.). Bartzelona: Graó.

Torres, J. (1991). La discriminación sexista en las instituciones escolares: niños visibles y niñas invisibles. *El currículum oculto*. (6. atala, 151-164 orr.). Madril: Ediciones Morata.

Ugarte, B. (2008). *Hezkidetza lantzeko klabe batzuk*. Euskal curriculuma. Herritarren ekarpena. 2019-02-28an berreskuratua https://upload.wikimedia.org/wikibooks/eu/0/04/Hezkidetza_lantzeko_klabe_batzuk_-_EC.pdf-tik.

Ugarte, B. (2013). Espainiar Zeinu Hizkuntza: Hezkidetza. *Pikara online magazine*. 2018-12-10ean berreskuratua <http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=h&ter=hezkidetza>-tik.

Urruzola, M.J. (1991). La educación de las niñas desde el feminismo de la diferencia. *DUODA: estudios de la diferencia sexual*, (2), 99-128. 2018-11-27ean berreskuratua, <file:///C:/Users/Usuario/Downloads/59989-86960-1-PB.pdf>-tik

UEU365 (2013, uztailak 17). *Itziar Zunzunegi: «Hezkidetza, heziketa metodo gisa, sexuen arteko berdintasunean eta diskriminazio ezan oinarritzen da»*. [Blog].2018-12-10ean berreskuratua <https://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365/2013/07/17/itziar-zunzunegi-hezkidetza-heziketa-metodo-gisa-sexuen-arteko-berdintasunean-eta-diskriminazio-ezan-oinarritzen-da/>-tik.

ERANSKINAK

1. eranskina: rol eta estereotipo jakinak neskekin edo mutilekin lotzea

"Bazen behin, 5 urteko ume alai bat. Haur honi izugarri gustatzen zitzaion eskolara joatea, ederki asko pasatzen zuen bertan bere lagunekin. Bere ikasgela ere pila bat gustatzen zitzaion, mozorroak, ipuinak, mahai-jolasak, margoak...denetarik zeukaten gelan, baita lasai asko jesarrita egoteko sofa bat ere! Gelan etxetik ekarritako jostailuak uzteko kutxa bat ere bazeukaten, hantxe uzten zuen beti bere panpina ilehoria.

Haur honi ile-apaintzailearenak egiten ibiltzea izugarri gustatzen zitzaion. Egun bakoitzean orrazkera ezberdin batekin etortzen zen gelara, berak egiten omen zizkion bere buruari, hau bai hau ile-apaintzaile aparta!

Sokasaltoan aritzea ere biziki maite zuen gure Eguzkik, baita dantzatzea ere. Arratsaldeetan baleta egitera joaten zen bere gelakideekin, eta hantxe aritzen zen tutua soinean zuela gora eta behera.

Bai haur alaia gure laguna!"

Prestaturiko galderak

Gustatu zaizue?

Nolakoa zen haurra? Zer gustatzen zitzaion gehien haur honi?

Eta zuei zertan jolastea gustatzen zaizue gehien?

Haur honi izen bat jartzekotan, zein aukeratuko zenukete?

Momentuan sorturiko galderak

Protagonista neska da, mutila da...zer da?

Mutil bat gelara ezpainak margotuta badator zerbait gertatzen da? Eta neska bat badator?

Mutil bat eta neska bat gelara soineko berdinarekin badatoz zerbait gertatzen da?

2. eranskina: jostailu gogokoenaren aukeraketa egitea

A jostailu-multzoa:



Irudien iturria:

<https://juguetos.com/1054-barbie>

<http://www.misjuguetes.es/mejor-precio/4003336006759/bayer-design-muneca-bebe-38-cm-las-primeras-palabras-con-chupete-y-botellin-color-rosa-93824ai>

<https://www.corazoncanalla.com/juguetes-y-peluches/207626-corona-princesa-con-plumas-corazon-canalla.html>

<https://www.elcorteingles.es/juguetes/A27669957-unicornio-my-lovely-unicorn-feber/>

<https://www.latiendadelafamilia.com/tienda/juguetes-de-imitacion-roles/oficios/maletin-de-peluqueria>

B jostailu-multzoa:



Irudien iturria:

<https://www.inforchess.com/tractores-pedales/tractor-pedales-john-deere-extra>

<https://www.elcorteingles.es/juguetes/A18263905-carrera-go-circuito-champions-carrera/>

<https://www.elcorteingles.es/juguetes/A1293551-maletin-de-herramientas-bosch/>

https://es.wikipedia.org/wiki/Bal%C3%B3n_de_f%C3%BAtbol

<https://es.aliexpress.com/item/32529697651.html>

Galderak

- Ikusten duzue desberdintasunik jostailu-multzo batetik bestera?
- Zein multzo aukeratuko zenukete?
- Zein da zuen jostailurik gogokoena?

Momentuan sorturiko galderak

- B multzoaren inguruan galdetu: nortzuk erabiltzen dituzte jostailu hauek?
- A multzoaren inguruan galdetu: nortzuk erabiltzen dituzte jostailu hauek?
- Neskenak diren jostailuak eta mutilenak direnak daudela uste duzue?
- Demagun Aitorrek gelara panpina bat ekartzen duela, zerbait gertatuko al litzateke?
Demagun Jarek gelara panpina bat ekartzen duela, zerbait gertatuko al litzateke?
- Zergatik esango ote dugu jostailu batzuk neskenak direla eta beste batzuk mutilenak?

3. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea

	Neskena	Mutilena	Biena
Mekanikaria			
Medikua			
Irakaslea			
Suhiltzailea			

Garbitzailea			
Autobuseko gidaria			
Futbolaria			
Astronauta			
Dantzaria			
Sukaldaria			

4. taula: lanbideak genero jakin batekin lotzearen inguruko galdetegia

4. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea: galdetegiaren emaitzak

	Neskena			Mutilena			Biena		
	N	M	G	N	M	G	N	M	G
Mekanikaria				5	6	11	8	1	9
Medikua	5	2	7				8	5	13
Irakaslea	1	4	5				12	3	15
Suhiltzailea				5	6	11	8	1	9
Garbitzailea	5	6	11				8	1	9
Autobuseko gidaria				1		1	12	7	19
Futbolaria				3	2	5			15
Astronauta				5	6	11	8	1	9
Dantzaria	5	2	7				8	5	13
Sukaldaria				4		4	9	7	16

5. taula: lanbideak genero jakin batekin lotzearen inguruko galdetegiko emaitzak

5. eranskina: lanbideak genero jakin batekin lotzea: marrazkiak

- Nesken marrazkiak





- Mutilen marrazkiak



